

EZ OHIKO ETA URGENTZIAZKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2009ko urtarrilaren hamaseian, gaueko bederatzia direnean, bildu dira, ez ohiko eta urgentziako Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Bittor Astigarraga Zugasti-Zinegotzia.

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar Zinegotzia

Jose Luis Albisua Lasa Zinegotzia eta Iosune Arruti Eizagirre zinegotziak ez dira bilkura honetan egongo arrazoi justifikatuengatik.

Idazkari lanetan, Leire Arteaga Zumeta Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

1.- UDALBATZARRAREN URGENTZIAREN AITORPENAREN ONARPENA.

Alkateak hitza hartu du eta proposatu du udalbatzarraren urgentzia aitortzea. Proposamena aho batez onartu dute.

2.- ERREZILGO FRONTOIAREN ERABERRIKUNTZA PROIEKTUAREN ONARPENA.

Alkateak hitza hartuz gaiaren aurrerakinak esan ditu, azaroaren 28ko 9/2008 errege dekretu legearen baitan inbertsio lokalerako fondo estatal bat eratu da ekonomia eta lanaren sustapenerako. Estatuko gobernua onartutakoa da. Horren baitan Errezilgo Udalar 112.034 euroko dirulaguntza dagokio obra inbertsioak egiteko. Proposatzen da frontoiaren eraberrikuntza egitea. Horretarako Imara ingenieritza taldeari frontoiaren eraberrikuntza obra lanen proiektua egiteko eskatu zitzaion. Egingo diren lanen berri ematen du Alkateak.

Proposatzen da frontoiaren eraberrikuntza proiektua onartzea. Bozketa egin dute eta bertan dauden kide guztien aldeko botoarekin proposamena onartu da.

3.- FONDO DE INVERSIÓN LOCAL PROGRAMAREN BAITAN FRONTOIAREN ERABERRIKUNTZA PROIEKTUA EGITEKO DIRULAGUNTZA ESAKERAREN ONARPENA.

Alkateak goiko puntuan erabakitakoari jarraituz puntu honetan proposatzen da Inbertsio lokalak egiteko fondo estatala programaren baitan frontoiaren eraberrikuntza proiektua egiteko dirulaguntza eskaera egitea onartzea.

Bozketa egitea proposatu du Alkateak eta bertan dauden kide guztien aldeko botoarekin erabaki dute inbertsio lokalak egiteko fondo estatalaren baitan Errezilgo frontoia eraberritzeko proiektuaren obrak egiteko dirulaguntza eskaera egitea onartzea azaroaren 28ko 9/2008 Errege dekretu legeak jasotzen dituen baldintza guztiak betez.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatiak eta erdi direnean, Alkateak ez ohiko eta urgentziazko udalbatzar hau amaitutzat ematen du eta nik, Idazkari gisa Akta jaso dut.

Alkateak

B. Idazkari Kontuhartzaileak